

**2014ko APIRILAREN 8an UDALBATZARRAK EGINDAKO APARTEKO
OSOKO BILKURAREN AKTA** **6 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2014ko apirilaren 8an, iluntzeko zortzietan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen aparteko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Juan Luis Illarramendi Roteta jn.
Bertaratutako zinegotziak	Eider Illarramendi Azkue and. Jabier Etxaburu Elu jn. Karmele Alberdi Linazasoro and. Iñaki Eizagirre Eizagirre jn. Alizia Osa Otxandorena and. Mikel Goenaga Gubia jn. Ane Eizmendi Alberdi and. Gari Berasaluze Ostolaza jn. Imanol Lasa Zeberio jn. Maite Garrastazu Aranguren and. Maribel Albizu Barrenetxea and. Iban San Martin Hernandez jn. Ixidor Larrañaga Aierbe jn. Jesus Arana Gomez jn. Patxi Elola Azpeitia jn. Mariana Aranburu Garate and. Aser Lertxundi Manterola jn. M ^a Jose Lafuente Grasa and.
Bilkura hasita	Gloria Vazquez Herranz and.
Ez da etorri	Irma Domingorena Zapirain and.
Idazkaria	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.
Behin-behineko kontu-hartzailea	Itziar Kortabarria Garitano and.

Batzarburu jaunak hala adierazita, hasiera eman diote bilkurari. Idazkari andreak adierazi du bilkura apartekoa dela; eta horren arrazoia da 2014. urteko aurrekontua onartzeko presa.

Ondoren, eguneko aztergaia bakarra aztertu eta eztabaidatu du Udalbatzarrak. Bilkura honela izan da:

GAI-ZERRENDA

Bakarra.- 2014. URTERAKO AURREKONTU OROKORRA.

Une honetan, **Gloria Vazquez** andrea bertaratu da bilkurara.

Udalbatzarrak, 2014ko martxoaren 6an egindako osoko bilkuran, hasierako onespena eman zion Zarauzko Udalaren 2014. ekitaldirako AURREKONTU OROKORRARI. Barnean honako hauek ditu: udal aurrekontua bera, "Zarauzko Turismo Bulegoa" eta "Zarauzko Kirol Patronatua" izeneko erakunde autonomoen eta Zarautz-Lur SA udal sozietatearen aurrekontuak eta aurrekontu bateratua.

Espedientea jendaurrean ikusgai egon den epean, erreklamazioa hau egon da:

- Mariana Aranburu andreak, Aralar-Ezker Anitza udal talde politikoko zinegotzi kideak, aurkeztu eta sinatua: 1 0401.601.439.00.0302013 N-634 ERREPIDEKO BIRIBILGUNEA (295.000,00 euro) izeneko partidari dagokionez. Bertan, N-634 errepidean biribilgune bat eraikitzekeo gastua aurreikusita dago.

Udaleko idazkari nagusiak espedienteari buruzko txostena egin ostean, Koordnazio informazio-batzordeak, 2014ko apirilaren 2an egindako bileran, proposatu du erreklamazioaren tramitazioa ez onartzea eta 2014. ekitaldirako AURREKONTU OROKORRA behin betiko onartzea.

Hori guztia ikusita, Udalbatzarrak, gehiengoz,

ERABAKI DU

Lehena.- Ez onartzea Mariana Aranburu andreak, Aralar-Ezker Anitza udal talde politikoko zinegotzi kideak, aurkeztutako erreklamazioaren tramitazioa, Udaleko idazkari nagusiak egindako txostenaren arabera. Txostena, arrazoitze-ondorietarako, akordio honi erantsita geratuko da.

Bigarrena.- Behin betiko onartzea Zarauzko Udalaren 2014. ekitaldirako AURREKONTU OROKORRA. Barnean honako hauek ditu: Udal Aurrekontua bera, "Zarauzko Turismo Bulegoa" eta "Zarauzko Kirol Patronatua" izeneko erakunde autonomoen eta "Zarautz-Lur SA" udal sozietatearen aurrekontuak, eta Aurrekontu Bateratua; eta onartzea, halaber, Aurrekontua gauzatzeko Araua.

Hirugarrena.- Behin betiko onartzea bai Udaleko, aipatutako bi erakunde autonomo horietako eta sozietateko Plantilla Organikoak, bai Langileen Lanpostuen zerrendak.

Laugarrena.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea aurrekontuaren behin betiko onespina –kapituluz kapitulu laburtuta–, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, 15.3 artikuluan xedatzen duena betetzeko.

Bosgarrena.- Era berean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea bai Udaleko bai bere erakunde autonomoetako aurrekontu-plantillak eta lanpostuen zerrendak, apirilaren 18ko 781/1986 legegintzako errege-dekretuak (127. artikuluan) eta uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak (16. artikuluan), xedatzen dutena betetzeko.

Eta aztertzeko besterik ezean, batzarburu andreak hala aginduta, bilkurari amaiera eman diote, gaueko bederatzietan, eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.